

DERMO

Hizotzgailu eramangarria

Bezeroarekiko harremana

DERMON **bezeroarekiko harremana funtsezko elementutzat** hartzen dugu, sendagaiak segurtasunez garraiatzeko diseinaturako produktu bat eskaintzen dugulako. Horregatik, hozkailu eramangarri bat eskaintzeaz gain, erabiltzaileari **lasaitasuna, konfiantza eta segurtasuna** emango dizkion zerbitzu integral bat garatzen dugu.

Aholkularitza pertsonalizatua

DERMOK **aholkularitza pertsonalizatua** eskaintzen du, bai banakako erabiltzaileentzat (alokairu bidez), bai **Osakidetza bezalako osasun-erakunde publikoekin lankidetzan**. Zerbitzu honen helburua da bezeroaren zalantzak argitzea eta gailuaren erabilera egokia bermatzea honako alderdi hauetan: **karga-sistemak, bateriaren autonomia, hozte-sistemaren funtzionamendua, tenperatura egokiaren mantentzea eta sendagaiak garraiatzeko gomendioak**.

Laguntza hau produktuaren erabilera aurretik, bitartean eta ondoren eskaintzen da, erabiltzaileak hozkailuaren funtzionamendua erabat ulertu eta modu seguru eta eraginkorrean erabili ahal izan dezan. Horrela, **erabilera okerrekin sendagaiaren kontserbazioa edo tratamenduaren eraginkortasuna arriskuan jartzea saihesten** da.



Mantentze-zerbitzua

Hozkailuaren alokairu-modalitatean, **DERMOK mantentze-zerbitzu osoa barne hartzen** du. Zerbitzu honek, hozkailu bakoitza funtzionamendu, higiene eta segurtasun baldintza egokietan entregatzea bermatzen du, sendagaiak garraiatzeko beharrezko estandarrak betez.

Mantentze-lanen barruan sartzen dira: **hozte-sistemaren, bakteriaren eta karga-sistemen berrikuspena, baita isolamendu termikoaren eta egoera orokorraren egiaztapena ere**. Gainera, **desinfekzio-zerbitzua eskaintzen** da, erabilera seguru eta higienikoa bermatzeko.

Zerbitzu honi esker, bezeroak **ez du alderdi teknikoez arduratu behar, horrek produktua erabiltzeko erosotasuna eta konfiantza handitzen ditu**. Aldi berean, produktuaren bizi-iraupena luzatzen da eta erabilera jasangarria sustatzen da, irtenbide fidagarri bat eskainiz.

